

Lekuonako liburutegi berriaren proiektua berraztertzen ari da Udala

Liburutegi berriaren kokagunea ez dela behin-betikoa adierazi du Joxe Mari Burgos Kultura zinegotziak

Jon Gonzalo

Joan den ikasturte politikoan Lekuona okindegiaren eraikinean herriko liburutegi berria egingo zutela jakinarazi zuen Errenteriako Udalak. 2008. urtea hastearrekin batera, ordea, asmoa hori berraztertzen hasi direla onartu dute. Lekuona okindegian liburutegi berria egitearen proiektua berraztertzen hasi gara, izan ere, ez ditugu bestelako aukerak baztertu nahi, azpimarratu du Joxe Mari Burgos Kultura zinegotziak.

Oro har, herriko kultur zerbitzuak eta kulturarekin lotutako azpiegitura berrantolatzen hasi direla jakinarazi du Burgosek. Kulturgune berria, liburutegi a, Xenpelar tailerrak... Proiektu bakoitza non eta nola egingo dugun eztabaidatzen ari gara, eta ez dugu oraindik behin betiko erabakirik hartu.

Lekuona, aukeretako bat

Liburutegi berria egiteko hainbat kokagune aztertzen ari dira Kultura sailetik, nahiz eta argi eta garbi utzi nahi izan duten ez dutela Lekuonako aukera baztertzen: Hainbat kokagune aztertzen ari gara, eta Lekuona okindegiko erakina horietako bat da. Argi eta garbi utzi nahi dugu Lekuona ez zaigula leku txarra iruditzen. Kontua da, bestelako aukerak aztertzea komenigarria iruditu zaigula.

Lehenik eta behin, ordea, kulturgune berriari emango zaion funtzionamendua zehaztu nahi dute. Liburutegiaren proiektuari heldu aurretik kulturgune berriaren zerbitzuak eta funtzionamendua zehaztea beharrezkoa da.

Kulturarekin lotutako azpiegituren berrantolaketa prozesuan bete-betean sartuta daude Udaleko Kultura saileko kideak. Hamabostean behin bilerak egiten dituzte, eta urtea amaitu aurretik behin betiko erabakiak hartuko dituztela adierazi dute. 2008a amaitu aurretik liburutegi berriaren kokagunea erabakiko dugula espero dut. Gure asmoa ahalik eta azkarren egitea da, baina presak ez gaitu itsutu behar. Ahalik eta kultur azpiegitura onenak egitea da garrantzitsua.

135.000 euroko proiektua

Liburutegi berria egiteko 135.000 euroko aurrekontua du Kultura sailak, nahiz eta diru laguntza gehiago jasotzeko itxaropenik ez duten galdu. Errenteriak 40.000 biztanle ditu, eta herriaren mailako liburutegia merezi du. Handia, berritzailea eta askotariko zerbitzuak eskaintzen dituen. Gisa honetako proiektu handizale bat egiteko diru laguntza gehiago eskatuko dizkiegu erakunde publikoei, azaldu du Kultura zinegotziak.

Madalena kaleko liburutegia

Madalena kaleko liburutegia txikia gelditu dela onartu dute Kultura sailetik. Madalenako kaleko liburutegian ez dago apenas lekurik. Jakin badakigu herriak bestelako liburutegi bat merezi duela, eta hori lortzeko lanean ari gara. Liburutegi berriaren kokagunea erabakitzen dutenean, Madalena kaleko liburutegian dauden artxibo eta dokumentu guztiak kokagune berrira eramango dituztela jakinarazi du Burgosek.